Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko azaroaren 14a, asteartea — 217 — Martes, a 14 de noviembre de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkateak 2017ko azaroaren 6an emandako Dekretu baten bidez erabaki du jarraian zehazten diren landa-etxeetako kanpoko argiterirako, ur-azpiegituraren sarea burutzeko edo berritzeko, putzu beltzak garbitzeko eta satelite bidez banda zabalean internetera sartzeko zerbitzu unibertsala hobetzeko diru-laguntzen arau-oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.

*Etxebizitza isolatuetan argiteria-sistemarako 2017. urteko diru-laguntzak eta horien deialdi publikoa arautzeko oinarriak.*

Bergarako Udalak, baserri-auzoetan bizi-kalitatea hobetzeko martxan jarri nahi duen programaren barruan, hainbat jarduketa aurreikusten ditu baserri-auzoetan gune nagusitik isolatuta dauden eraikinen kanpoaldean argiak jartzeko.

Helburu hori lortzeko, eraikin horietako fatxadan edo horien inguruan argi-puntu bat jartzeko beharrezko obrak egingo eta finantzatuko ditu udalak.

Hala ere, arrazoi tekniko eta ekonomikoengatik, argi-puntu horien elikadura eraikinaren beraren zerbitzu orokorretatik desbideratuta egitea komeni da; eta ez hargune independente batetik, argiteria publikoko saretik eginez gero egin beharko litzatekeen bezala. Argiteria publikoko sarea ez da iristen puntu horietaraino, eta horregatik, hori kanalizatzea oso garestia da.

Horrek ahalegin ekonomikoa eskatzen die eragindako auzotarrei, eta ahalegin hori konpentsatu ahal izateko aurreikusi dira diru-laguntza hauek, kanpoaldea argiztatzeko jarritako argi-puntu horiek kontsumitzen duten energia finantzatzeko helburuarekin.

1. *Helburua.*

Oinarri hauen helburua da banakako ebaluazioaren erregimenean diru-laguntza hauek emateko prozedura arautzea: baserri-auzoetako gune nagusitik isolatuta dauden eraikinen kanpoaldean jarritako argi-puntuen energia-kontsumoa finantzatzeko diru-laguntzak; betiere eraikinek kanpoko argiteria publikorik ez badute. Laguntzak honako helburu hau bete beharko du:

— Eraikinaren sarrera nagusia argiztatzea, eta baita berari atxikitakoak eta bertarako sarbideak.

Ondorengo arauak jarraituko dira diru-laguntzak emateko:

— Borondatezko eta aldi baterako izaera izango dute.

2. *Araudi aplikagarria.*

Diru-laguntza hauek ematea eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa arautzeko, oinarri hauei jarraituko zaie eta baita diru-laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauei ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako, aplikagarri izango dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

La Alcaldesa mediante Decreto de 6 de noviembre de 2017 resolvió aprobar las bases reguladoras de las subvenciones y la convocatoria pública referente al año 2017 referido al sistema de alumbrado en viviendas aisladas; la ejecución o renovación de la infraestructura de agua; la limpieza de fosas sépticas y mejora del servicio universal de acceso a internet de banda ancha vía satélite.

*Bases reguladoras de las subvenciones y convocatoria pública referente al año 2017 para el sistema de alumbrado en viviendas aisladas.*

El Ayuntamiento de Bergara, en el marco del programa que quiere poner en marcha para mejorar la calidad de vida en los barrios rurales, contempla una serie de actuaciones para dotar de alumbrado exterior a las edificaciones que están aisladas del núcleo principal de los barrios rurales.

Para conseguir ese objetivo, el Ayuntamiento asumirá la realización y financiación de las obras necesarias para instalar un punto de luz en la fachada de tales edificios o en las proximidades de los mismos.

Sin embargo, razones técnicas y económicas aconsejan que la alimentación de dichos puntos de luz tenga su origen en una desviación sobre los servicios generales del propio edificio y no en una acometida independiente al mismo, tal y como sucedería si se hiciera desde una red de alumbrado público. La red de alumbrado público no llega a dichos puntos y su canalización resulta extremadamente onerosa.

Ello exige un esfuerzo económico para los vecinos afectados, esfuerzo que se pretende compensar con las ayudas contempladas en las presentes bases y que van destinadas a financiar el consumo de energía consumido en los puntos de luz habilitados para la iluminación exterior.

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación del procedimiento para la concesión, en régimen de evaluación individualizada, de subvenciones destinadas a la financiación del consumo de energía en aquellos puntos de luz instalados en el exterior de edificaciones aisladas del núcleo principal de Barrio Rural y que no tengan iluminación exterior pública y que cumpla el siguiente objetivo:

— Iluminación de la entrada principal del edificio; así como de los anejos del mismo y los accesos a los mismos.

El otorgamiento de las subvenciones se atendrá a estas normas:

— Tendrán carácter voluntario y eventual.

2. *Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subven-

EK\CV GAO-I-2017-07745

Lege Orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako Erregelamendua, Bergarako Udalaren Udal Aurrekontuaren Araua, eta gai honen inguruan indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarria.

3. *Finantzaketa.*

Xede honetarako, udal aurrekontuan 6.000 euroko kopurua izendatu da, honako aurrekontu-partidaren kargura: 1.0700. 481.414.00.01.2017.

Aipatutako aurrekontu-dotazioa udalak emango duen gehieneko diru-kopurua da.

Partida honi dagokion urteko diru-izendapena agortutakoan, diru-laguntzen beste hiru lerroetakoren batean diru-izendapena baldin badago, aurrez teknikariak txostena eginda, Udaleko Ingurumeneko Batzorde Informatzaileak proposamen bat egin ahal izango du aipatutako diru-izendapen hori edo horren zati bat laguntza-lerro honetara bideratzeko, eta horren erabakia Alkatearen eskutan edo hark delegatutako organoaren eskutan utziko da.

Beste alde batetik, urteko diru-izendapena agortu ondoren, onartutako baina ordaindu gabeko diru-laguntzak, hala badagokie, hurrengo urteko aurrekontua onartutakoan ordainduko dira, aurrekontuetan horretarako jasotako partidaren kontura.

4. *Onuradunak.*

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzak pertsona fisikoek eta juridikoek eskatu ahal izango dituzte, betiere laguntzetarako deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31ren aurretik Bergaran erroldatuta badaude edo bertan egoitza fiskala badute, landa-gunean diru-laguntzaren helburu den eraikinen bat jabetzan baldin badute eta eraikin horren helburua etxebizitzatarako eta/edo ekonomia-jarduera bati lotua bada.

Higiezin guztiak dagokien katastroan alta emanda egon beharko dira.

5. *Diru-laguntzaren bidez lagundu daitezkeen gastuak.*

Diruz lagundu daitezkeen gastuak deialdiaren urteko kontsumoari dagozkionak izan beharko dira, eta betiere ondorengo baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituzten argi-puntuei dagozkienean:

— Udalak berak instalatzen edo baimentzen dituenak, edo aurretik instalatuta dauzkanak.

— Kanpoko argiteria publikorik ez izatea.

— Argi-puntua pizteko sistemak funtzionatzea.

Ezarritako baldintzak ez badira betetzen, arrazoia edozein delarik ere, diru-laguntza itzultzea exijitu dezake udalak.

6. *Araubidea.*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean erabakiko dira; izan ere, laguntza hauek oso ezohiko izaera dute, asmoa baita argiteria publikoko sarea iristen ez den eta hori kanalizatzea oso garestia litzatekeen landa-guneetan argiteria bermatzea.

7. *Laguntzen zenbatekoa.*

Diru-laguntzaren zenbatekoa: 15,00 euro urteko eta argi-puntu bakoitzeko, LED argi klasiko eta/edo arrunten kasuan. LED argi apaingarria jartzen den kasuan, diru-laguntza izango da 35,00 euro urteko eta argi-puntuko, eta gehienez eraikin bakoitzeko argi-puntu bat. Argi-puntu hori eranskin batean jarriko balitz ere, berdin aplikatuko da laguntza.

ciones (*Boletín Oficial del Estado* 18-11-2003) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

3. *Financiación.*

Para tal fin, en el presupuesto municipal se ha destinado la cantidad de 6.000 euros, a cargo de la partida presupuestaria 1.0700.481.414.00.01.2017.

La expresada dotación presupuestaria constituirá el límite máximo a conceder por parte del Ayuntamiento.

Agotada la consignación anual referida a esta partida y existiendo dotación presupuestaria en alguna o algunas de las otras tres líneas de subvención, previo informe técnico, la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente podrá efectuar una propuesta para destinar la expresada consignación o parte de ella a esta línea de ayudas, que será elevada a Alcaldía u órgano en quien delegue para su resolución.

Por otro lado, agotada la consignación anual, las subvenciones reconocidas y no abonadas se satisfarán, en su caso, una vez aprobado al presupuesto del año siguiente con cargo a la partida recogida en los mismos a tal fin.

4. *Beneficiarios.*

Podrán solicitar las ayudas económicas contempladas en las presentes bases las personas físicas o jurídicas que tengan su residencia fiscal o estén empadronadas en el municipio de Bergara con anterioridad al 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria de las ayudas y sean propietarias en el área rural de una edificación objeto de la subvención cuyo uso sea residencial y/o vinculado a una actividad económica.

Todos los inmuebles deberán de estar dados de alta en el catastro correspondiente.

5. *Gastos susceptibles de subvención.*

Los gastos susceptibles de subvención serán referidos a consumos del año de la convocatoria y deberá ser relativos a puntos de luz que cumplan todas y cada una de las siguientes condiciones:

— Hayan sido instalados o autorizados por el ayuntamiento, o tengan previamente instalados.

— No exista iluminación exterior pública.

— El sistema de encendido del punto de luz debe de estar en funcionamiento.

El Ayuntamiento podrá exigir la devolución de la subvención cuando por cualquier circunstancia dejen de verificarse las condiciones establecidas.

6. *Régimen.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas, que pretende garantizar un alumbrado en aquellos núcleos rurales en los que la red de alumbrado público no llega y su canalización sería extremadamente onerosa.

7. *Cuantía de las ayudas.*

La cuantía de la subvención: 15,00 euros por año y punto de luz en el caso de una luminaria LED clásica y/o normal. En el supuesto de que se instale una luminaria LED ornamental la subvención será de 35,00 euros por año y punto de luz, con un máximo de 1 punto de luz por edificio. En caso de que en un anejo se instalara el expresado punto de luz, se aplicará igualmente la citada ayuda.

EK\CV GAO-I-2017-07745

*8. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua. Indarraldia.*

Eskaerak sinatutako eskabide-orriaren bidez egin beharko dira, udaletxean eta webgunean eskura dauden eskaera-eredu normalizatuan (honekin batera doa, I. Eranskin gisa, eskabide-eredua).

Eskaerak abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:30era, Udal Erregistro Orokorrean.

Eskaerak aurkezteko epea hasiko da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.

Eskaerak aurrekontu-izendapena dagoen bitartean erabakiko dira.

*9. Erabakia.*

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak aztertuko ditu eskaerak eta, dokumenturen bat falta dela antzematen badu, 10 eguneko epea emango du hura aurkeztu ahal izateko.

Hamar eguneko epe hori amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balu, diru-laguntzaren eskaria zuzenean baztertuta geratuko da.

Azkenik, txosten teknikoa egin ondoren, Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamen bat bidaliko dio Alkateari edo hark eskuordetutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, eskaera hori ez dela onartu ulertu beharko litzateke.

Erabaki-proposamena egin aurretik, udalak beharrezkoa deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du Ingurumeneko Batzorde Informatzailearen bitartez.

*10. Onuradunen betebeharrak.*

Honakoak dira onuradunen betebeharrak:

a) Diru-laguntza jasotzeko moduko gastu horiek egitea.

b) Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza emateari edo erabiltzeari buruzko helburua, baldintzak eta betekizunak betetzen direla.

c) Diru-laguntzaren xedea benetan gauzatzen dela egiaztatu ahal izateko udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.

d) Xede berberarako beste diru-laguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Bergarako Udalari.

*11. Diru-laguntza ordaintzeko modua.*

Diru-laguntza hilabete bateko epean ordainduko da, diru-laguntzaren erabakia hartzen denetik kontatzen hasita, baina horretarako aurrez oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

*12. Diru-laguntzen konkurrentzia.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

*13. Araudi osagarria.*

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoen guztirako, aplikagarri honako lege-arau hauetan xedatutakoa: Estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta lege hori garatzeko Erregelamen-

*8. Plazo y lugar de presentación de solicitudes. Vigencia.*

Las solicitudes deberán formularse mediante instancia firmada y ajustada al modelo normalizado que se encuentra a su disposición en las dependencias del Ayuntamiento y en la página web (se incorpora modelo de solicitud como anexo 1).

Las solicitudes se podrán presentar hasta el 31 de diciembre de 9:30 a 14:30 horas, de lunes a viernes, en el Registro General del Ayuntamiento.

El plazo comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el «BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

Las solicitudes serán resueltas en tanto se disponga de consignación presupuestaria.

*9. Resolución.*

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, las mismas serán examinadas por la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente, la cual, en caso de constatar que falte algún documento concederá un plazo de 10 días para su presentación.

Finalizado dicho plazo sin que se haya presentado la documentación requerida, la solicitud de subvención quedará automáticamente excluida.

Por último, previo informe técnico, la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente efectuará una propuesta de concesión de subvenciones que será elevada a Alcaldía u órgano en quien delegue para su resolución.

El plazo máximo para resolver será de tres meses a partir del día en que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

Si transcurrido el citado plazo, el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido desestimada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa de Medio Ambiente, podrá requerir cuanta información complementaria considere precisa antes de formular la propuesta de resolución.

*10. Obligaciones de las beneficiarias.*

Las obligaciones de las beneficiarias son los siguientes:

a) Realizar los gastos susceptibles de subvención.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Bergara el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones que el Ayuntamiento pueda llevar a cabo a fin de comprobar el efectivo desarrollo del objeto de la subvención.

d) En caso de obtener otras subvenciones destinadas a la misma cuestión, ponerlo en conocimiento del Ayuntamiento de Bergara.

*11. Pago de la subvención.*

El pago se realizará en el plazo de un mes desde la resolución de la subvención, previa presentación de la documentación requerida en las presentes bases.

*12. Concurrencia de subvenciones.*

La subvención otorgada por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra subvención recibida para el mismo fin.

*13. Normativa supletoria.*

Para cuanto no esté expresamente establecido en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la ley estatal 38/2003, de 17 de noviembre y su Reglamento de desarrollo

EK\CV GAO-I-2017-07745

dua (887/2006 Errege Dekretuz onartutakoa), Bergarako Udalaren Udal Aurrekontuaren Araua, eta gai honen inguruan indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarria.

*Ur-azpiegitura egiteko edo berritzeko diru-laguntzak.*

Bergarako Udalak, baserri-auzoetan bizi-kalitatea hobetzeko martxan jarri nahi duen programaren barruan, hainbat jarduketa aurreikusten ditu baserri-auzoetan gune nagusitik isolatuta dauden eraikinetan ur-horniduraren azpiegitura sartzeko.

Helburu hau lortzeko, udalak bere gain hartuko du ur-sistema hobetzeko behar diren obrak egin eta finantzatzea; hala nola, hodi berriak sartzea, ur-biltegien (depposituen) azpiegiturak egin eta/edo konpontzea, pieza bereziak, ura edangarri egiteko gailuak (potabilizadoreak), eta abar, bai eraikinetan bertan edo haien inguruetan.

Horrek ahalegin ekonomikoa eskatzen die eragindako auzotarrei, eta ahalegin hori konpentsatu ahal izateko aurreikusi dira diru-laguntza hauek, hornidura-sistema egokitzeko behar den azpiegituraren exekuzioa eta, behar balitz, horretarako materialaren horniketa finantzatzeko helburuarekin.

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da banakako ebaluazioaren erregimenean diru-laguntza hauek emateko prozedura arautzea: baserri-auzoetako gune nagusitik isolatuta dauden eraikinetan ur-horniduraren azpiegitura bat sartzeko edo berritzeko finantzatzeko diru-laguntzak, betiere udal-sareari lotuta ez daudenean.

*2. Araudi aplikagarria.*

Diru-laguntza hauek ematea eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa arautzeko, oinarri hauei jarraituko zaie eta baita diru-laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauei ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Erregelamendua aplikatuko dira, Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

*3. Finantzaketa.*

Xede honetarako, udal aurrekontuan 40.000 euroko kopurua izendatu da, honako aurrekontu-partidaren kargura: 1.0700.481.414.00.01.2017.

Aipatutako aurrekontu-dotazioa udalak emango duen gehieneko diru-kopurua da.

Partida honi dagokion urteko diru-izendapena agortutakoan, diru-laguntzen beste hiru lerroetakoren batean diru-izendapena baldin badago, aurrez teknikariak txostena eginda, Udaleko Ingurumeneko Batzorde Informatzaileak proposamen bat egin ahal izango du aipatutako diru-izendapen hori edo horren zati bat laguntza-lerro honetara bideratzeko, eta horren erabakia Alkatearen eskutan edo hark delegatutako organoaren eskutan utziko da.

Urteko diru-izendapena agortu ondoren, onartutako baina ordaindu gabeko diru-laguntzak, hala badagokie, hurrengo urteko aurrekontua onartutakoan ordainduko dira, aurrekontuetan horretarako jasotako partidaren kontura.

*4. Onuradunak.*

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzak pertsona fisikoek eta juridikoek eskatu ahal izango dituzte, betiere laguntzetarako deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31ren aurretik Bergaran erroldatuta badaude edo bertan egoitza fiskala badute,

aprobado por Real Decreto 887/2006, en la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

*Subvenciones para la ejecución o renovación de la infraestructura de agua.*

El Ayuntamiento de Bergara, en el marco del programa que quiere poner en marcha para mejorar la calidad de vida en los barrios rurales, contempla una serie de actuaciones para dotar de una infraestructura de abastecimiento de agua a las edificaciones que están aisladas del núcleo principal de los barrios rurales.

Para conseguir ese objetivo, el Ayuntamiento asumirá la realización y financiación de las obras necesarias para mejorar el sistema de agua mediante la incorporación de nuevas tuberías, ejecución y/o reparación de las infraestructuras de almacenamiento (depósitos), piecerío especial, potabilizadores, etc., a ejecutar en los edificios o en las proximidades de los mismos.

Ello exige un esfuerzo económico para los vecinos afectados, esfuerzo que se pretende compensar con las ayudas contempladas en las presentes bases y que van destinadas a financiar el posible suministro de material y la ejecución de la infraestructura necesaria para la habilitación de un sistema de abastecimiento.

*1. Objeto.*

El objeto de las presentes bases es la regulación del procedimiento para la concesión, en régimen de evaluación individualizada, de subvenciones destinadas a la financiación de la dotación o renovación de una infraestructura de abastecimiento de agua a las edificaciones que están aisladas del núcleo principal de los barrios rurales y no están conexas a la red municipal.

*2. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18-11-2003) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, en la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

*3. Financiación.*

Para tal fin, en el presupuesto municipal se ha destinado la cantidad de 40.000 euros, a cargo de la partida presupuestaria 1.0700.481.414.00.01.2017.

La expresada dotación presupuestaria constituirá el límite máximo a conceder por parte del Ayuntamiento.

Agotada la consignación anual referida a esta partida y existiendo dotación presupuestaria en alguna o algunas de las otras tres líneas de subvención, previo informe técnico, la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente podrá efectuar una propuesta para destinar la expresada consignación o parte de ella a esta línea de ayudas, que será elevada a Alcaldía u órgano en quien delegue para su resolución.

Agotada la consignación anual, las subvenciones reconocidas y no abonadas se satisfarán, en su caso, una vez aprobado al presupuesto del año siguiente con cargo a la partida recogida en los mismos a tal fin.

*4. Beneficiarios.*

Podrán solicitar las ayudas económicas contempladas en las presentes bases las personas físicas o jurídicas que tengan su residencia fiscal o estén empadronadas en el municipio de Bergara con anterioridad al 31 de diciembre del año anterior al

EK\CV GAO-I-2017-07745

landa-gunean diru-laguntzaren helburu den eraikinen bat jabetzan baldin badute eta eraikin horren erabilera bizitegikoa bada eta/edo nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategikoa.

Higiezin guztiak dagokien katastroan alta emanda egon beharko dira.

5. *Finantzatzeko moduko gastuak.*

— Ur-hodiak ordeztu edo berriak jartzea, baita pieza bereziak ere, eta obra zibileko lanak barne.

— Lehendik dauden ur-biltegiak eraberritzea, ur-biltegi berriak egitea.

— Ponpaketak, zundaketak edo zulaketak eta abar egitea.

Diruz lagundu ahal izango diren zerrendatutako gastu guztiak honako helburua izan beharko dute: baserri-auzoetako gune nagusitik isolatuta dauden eraikinetan ur-hornidurarako udal-saretik kanpoko azpiegitura bat sartzea edo berritzea.

6. *Araubidea.*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean erabakiko dira; izan ere, laguntza hauek oso ezohiko izaera dute, asmoa baita ur-hornidurarako sare publikoa iristen ez den landa-guneetan ur-hornidura bermatzea eta hori kanalizatzea oso garestia litzateke.

7. *Diru-laguntzen zenbatekoa.*

Udalak berariazko baldintzak betetzen dituzten baserriei honako diru-laguntza emango die: ur-hornidurarako materiala erostean edo eraberritze- edo hobetze-lanen exekuzioan izan duten kostuaren % 50, baina gehienez ere 8.000,00 euroko mugarekinetxebizitza edo ustiategi bakoitzeko.

8. *Eskabideak aurkezteko epea eta lekua. Indarraldia.*

Eskaerak sinatutako eskabide-orriaren bidez egin beharko dira, udaletxean eta webgunean eskura dauden eskaera-eredu normalizatuan (honekin batera doa, I. Eranskin gisa, eskabide-eredua).

Eskaerak abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:30era, Udal Erregistro Orokorrean.

Eskaerak aurkezteko epea hasiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.

Eskaera Udalari zuzenduko zaio eta, eskaera orokor horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Egin beharreko lan edo instalazioetarako udal baimena, eta baita haien memoria deskribatzailea ere.

— Faktura, material-erosketarena, egindako lanena.

— Ur-instalazioaren argazkiak.

— Kontu korrontearen zenbakia, ordainketa egin ahal izateko.

Eskaerak aurrekontu-izendapena dagoen bitartean erabakiko dira.

9. *Erabakia.*

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak aztertuko ditu eskaerak eta, dokumenturen bat falta dela antzematen badu, 10 eguneko epea emango du hura aurkeztu ahal izateko.

Hamar eguneko epe hori amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balu, diru-laguntzaren eskaria zuzenean baztertuta geratuko da.

de la convocatoria de las ayudas y sean propietarias en el área rural de una edificación objeto de la subvención cuyo uso sea residencial y/o explotación agrícola y/o ganadera.

Todos los inmuebles deberán de estar dados de alta en el catastro correspondiente.

5. *Gastos susceptibles de financiación.*

— Sustitución e instalación de nuevas conducciones de agua, piecerío especial e incluso los trabajos de obra civil.

— Reforma de los depósitos existentes, ejecución de nuevos almacenamientos de agua.

— Ejecución de bombeos, sondeos o perforaciones etc.

Todos los gastos susceptibles de subvención relacionados estarán destinados a la dotación o renovación de una infraestructura de abastecimiento de agua –ajena a la red de abastecimiento municipal de agua– a las edificaciones que están aisladas del núcleo principal de los barrios rurales.

6. *Régimen.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada; dada la naturaleza excepcional de estas ayudas, que pretende garantizar el abastecimiento de agua en aquellos núcleos rurales en los que la red de abastecimiento público no llega y su canalización sería extremadamente onerosa.

7. *Cuantía de las subvenciones.*

El Ayuntamiento subvencionará a los caseríos que cumplan las condiciones específicas con el 50 % del coste de la compra de material o ejecución de reformas y/o mejoras en el suministro de agua con una subvención máxima de 8.000,00 euros por vivienda y/o explotación.

8. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes. Vigencia.*

Las solicitudes deberán formularse mediante instancia firmada y ajustada al modelo normalizado que se encuentra a su disposición en las dependencias del Ayuntamiento y en la página web (se incorpora modelo de solicitud como anexo 1).

Las solicitudes se podrán presentar hasta el 31 de diciembre de 9:30 a 14:30 horas, de lunes a viernes, en el Registro General del Ayuntamiento.

El plazo comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el «Boletin Oficial de Gipuzkoa».

La solicitud se dirigirá al Ayuntamiento. Junto con la solicitud general se deberán presentar los siguientes documentos:

— Licencia municipal de los trabajos o instalaciones a ejecutar, con una memoria descriptiva de los mismos.

— Factura de la compra de material, de los trabajos ejecutados.

— Fotografías de la instalación de aguas.

— N.º de cuenta corriente para efectuar los pagos.

Las solicitudes serán resueltas en tanto se disponga de consignación presupuestaria.

9. *Resolución.*

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, las mismas serán examinadas por la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente, la cual, en caso de constatar que falte algún documento concederá un plazo de 10 días para su presentación.

Finalizado dicho plazo sin que se haya presentado la documentación requerida, la solicitud de subvención quedará automáticamente excluida.

EK\CV GAO-I-2017-07745

Azkenik, txosten teknikoa egin ondoren, Ingurumeneko Udal Batzorde Informatzaileak diru-laguntzak emateko proposamen bat bidaliko dio Alkateari edo hark eskuordetutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, eskaera hori ez dela onartu ulertu beharko litzateke.

Erabaki-proposamena egin aurretik, udalak beharrezkoa deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du Ingurumeneko Batzorde Informatzailearen bitartez.

*10. Onuradunen betebeharrak.*

Honakoak dira onuradunen betebeharrak:

a) Diru-laguntza jasotzeko moduko gastu horiek egitea.

b) Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza emateari edo erabiltzeari buruzko helburua, baldintzak eta betekizunak betetzen direla.

c) Diru-laguntzaren xedea benetan gauzatzen dela egiaztatu ahal izateko udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.

d) Xede berberarako beste diru-laguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Bergarako Udalari.

*11. Diru-laguntza ordaintzeko modua.*

Diru-laguntza hilabete bateko epean ordainduko da, diru-laguntzaren erabakia hartzen denetik kontatzen hasita, baina horretarako aurrez oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

*12. Diru-laguntzen konkurrentzia.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

*13. Araudi osagarria.*

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoen guztirako, aplikagarri honako lege-arau hauetan xedatutakoa: Estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta lege hori garatzeko Erregelamendua (887/2006 Errege Dekretuz onartutakoa), Bergarako Udalaren Udal Aurrekontuaren Araua, eta gai honen inguruan indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarria.

*Putzu septikoak garbitzeko diru-laguntzak.*

Udalaren helburuetariko bat da landa-guneko bizi-kalitatea hobetzea. Horrekin batera, ingurumenaren defentsa eta zaintza helburu nagusi bat da.

Isolatutako instalazioetatik datozen isurketak (sare orokorrera lotu gabekoak) kaltegarri suertatu daitezke osasunerako eta ingurumenerako. Horregatik, diru-laguntza honen xedea da diruz laguntzea saneamendu-instalazioen higienizazioa eta asepsia.

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da banakako ebaluazioaren erregimenean diru-laguntza hauek emateko prozedura arautzea: baserrien saneamendu-instalazioen higienizazioa eta asepsia finantzatzeko diru-laguntzak.

*2. Araudi aplikagarria.*

Diru-laguntza hauek ematea eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa arautzeko, oinarri hauei jarraituko zaie eta baita diru-laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauei ere.

Por último, previo informe técnico, la Comisión Informativa Municipal de Medio Ambiente efectuará una propuesta de concesión de subvenciones que será elevada a Alcaldía u órgano en quien delegue para su resolución.

El plazo máximo para resolver será de tres meses a partir del día en que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

Si transcurrido el citado plazo, el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido desestimada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa de Medio Ambiente, podrá requerir cuanta información complementaria considere precisa antes de formular la propuesta de resolución.

*10. Obligaciones de las beneficiarias.*

Las obligaciones de las beneficiarias son los siguientes:

a) Realizar los gastos susceptibles de subvención.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Bergara el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones que el Ayuntamiento pueda llevar a cabo a fin de comprobar el efectivo desarrollo del objeto de la subvención.

d) En caso de obtener otras subvenciones destinadas a la misma cuestión, ponerlo en conocimiento del Ayuntamiento de Bergara.

*11. Pago de la subvención.*

El pago se realizará en el plazo de un mes desde la resolución de la subvención, previa presentación de la documentación requerida en las presentes bases.

*12. Concurrencia de subvenciones.*

La subvención otorgada por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra subvención recibida para el mismo fin.

*13. Normativa supletoria.*

Para cuanto no esté expresamente establecido en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la ley estatal 38/2003, de 17 de noviembre y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, en la Norma Presupuestaria Municipal del Ayuntamiento de Bergara y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

*Subvenciones para la limpieza de fosas sépticas.*

Uno de los objetivos del Ayuntamiento es mejorar la calidad de vida del espacio rural. Junto con esto, la defensa y cuidado del medio ambiente es un objetivo principal.

Los vertidos que provienen de instalaciones aisladas (no conectadas a la red general) puedan dañar la salud y el medio ambiente. Es por ello que el objeto de esta subvención es la ayuda económica para la higienización y asepsia de las instalaciones de saneamiento.

*1. Objeto.*

El objeto de las presentes bases es la regulación del procedimiento para la concesión, en régimen de evaluación individualizada, de subvenciones destinadas a la financiación de la higienización y asepsia de las instalaciones de saneamiento de los caseríos.

*2. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.



EK\CV GAO-I-2017-07745

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Erregelamendua aplikatuko dira, Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

*3. Finantzaketa.*

Xede honetarako, udal aurrekontuan 10.000 euroko kopurua izendatu da, honako aurrekontu-partidaren kargura: 1.0700.481.414.00.01.2017.

Aipatutako aurrekontu-dotazioa udalak emango duen gehieneko diru-kopurua da.

Partida honi dagokion urteko diru-izendapena agortutakoan, diru-laguntzen beste hiru lerroetakoren batean diru-izendapena baldin badago, aurrez teknikariak txostena eginda, Udaleko Ingurumeneko Batzorde Informatzaileak proposamen bat egin ahal izango du aipatutako diru-izendapen hori edo horren zati bat laguntza-lerro honetara bideratzeko, eta horren erabakia Alkatearen eskutan edo hark delegatutako organoaren eskutan utziko da.

Urteko diru-izendapena agortu ondoren, onartutako baina ordaindu gabeko diru-laguntzak, hala badagokie, hurrengo urteko aurrekontua onartutakoan ordainduko dira, aurrekontuetan horretarako jasotako partidaren kontura.

*4. Onuradunak.*

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzak pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte, betiere laguntzetarako deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31ren aurretik Bergaran erroldatuta badaude edo bertan egoitza fiskala badute eta saneamenduko sare orokorrera loturarik ez duten baserrien jabeak badira, baserri horiek bizitegi-erabilerakoak badira eta putzu septikoa badute, II. eranskinean ezarritako baldintzen arabera.

Atal honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, saneamendu-azpiegiturarik gabeko gunetzat joko dira hargunea jarri behar den tokian kolektore-sarerik ez duen gunea.

Ezingo dira izan onuradunak ustiategi bakoitzaren hondakin-urek behar duten tratamendua norberaren ustiapen-proiektuan sartuta izan behar duten nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako ustiategi edo instalazioak.

Higiezin guztiak dagokien katastroan alta emanda egon beharko dira.

Era berean, dirulaguntza-lerro honetatik kanpo geldituko dira turismoko edo ostalaritzako jarduerak.

*5. Finantzatzeko moduko gastuak.*

Finantzatuko diren gastuak bakar-bakarrik izango dira bizitegi-erabilera duten baserrien saneamendu-instalazioen higienizazioa eta asepsia finantzatzeko gastuen ingurukoak.

*6. Araubidea.*

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean erabakiko dira; izan ere, laguntza hauek oso ezohiko izaera dute, asmoa baita landa-guneko bizi-kalitatea hobetzea eta aldi berean ingurumenaren defentsa eta zaintza sustatzea, isolatutako instalazioetatik datozen isurketak jasoz eta tratatuz (betiere sare orokorrera lotu gabekoetan).

*7. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

